

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAU-N ONDOKO LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA:
KARROZARIA**

- **3.FASEA – ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALAREN BEHIN BETIKO EMAITZA**
- **MEREZIMENDUEN BALORAZIOAREN BEHIN BETIKOEMAITZA**
- **BEHIN BETIKO AZKEN KALIFIKAZIOA**

Lehena.- Alegazioak aurkezteko epea amaituta eta bakar bat ere jarri ez denez, argitara ematen dira Karrozarien lan poltsa osatzeko hautaketa prozesuko **3. Faseko Elkarrizketa eta Analisi Pertsonalaren eta 4. Faseko Merezimenduen Balorazioaren behin betiko emaitzak.** (1. eta 2. ERANSKINAK).

Bigarrena.- Argitara ematen da hautaketa prozesua gainditu duten hautagaien **behin betiko azken kalifikazioa.** Hautaketa Prozesuaren fase bakoitzean lortutako kalifikazio partzialak batuz lortutako kalifikazioa da. Azken kalifikazio horrek Lan Poltsako hurrenkera zehaztuko du (3. ERANSKINA).

Hirugarrena.- “Lan poltsan sartu, eta lan poltsa osatu eta kudeatzeari”-ri buruzko informazioa, Deialdiaren Oinarrien arabera:

Gai diren hautagaiek Lan Poltsa osatuko dute, eta horrek eskubidea emango die lehenbailehen bete behar diren eta atzeratu ezin diren behin-behineko langile premiei erantzuteko, betiere salbuespenezko kasuak badira, eta beti aldi baterako kontratuen bitartez. Halere, gerta daiteke, plazaren izaeragatik eta betiere horretarako lege estaldura baldin badago, behin betiko lanpostuak estaltzeko ere izatea.

Lan poltsan dauden hautagaietako bati lanean hasteko deitzen badiote, une horretan azterketa medikoa egin beharko du egiaztatzeko ez daukala ez gaixotasunik ez akats fisikorik bete beharko duen lanpostuaren berezko funtzioak egitea eragotziko dionik. Horretarako proba hauek egingo dizkiote, besteak beste: odol eta gernu analisiak, bihotzeko eta biriketako miaketa, miaketa abdominala, bizkar hezuraren miaketa, miaketa neurologikoa, ikusmenaren kontrola, entzumenaren miaketa eta anamnesia. Halere, DTK-k bere esku uzten du beste proba gehigarri batzuk eskatzeko edo egiteko aukera.

Lan poltsaren gestioa azkenean lortutako puntuazio globalaren hurrenkerari jarraituta egingo da. Hurrenkera horren arabera lehentasunak ezarriko dira. Barne deialdian onartutako hautagaiek lehentasuna izango dute besteen aurretik.

Hautagai batek lehenengo lan eskaintzari uko eginez gero, beste 2 aldiz gehiago deitu ahal izango diote. Beraz, hirugarren deia uko egiten badio, lan poltsatik kanpo geldituko da.

Lan poltsa bi urtetarako izango dira, behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik hasita. Halere, arrazoi operatiboak direla eta, lan poltsak beste bi urtez luzatu ahal izango dira.

Osatu den Lan Poltsan egotearen ondorioz Donostiako Tranbia Konpainia SAUn lanean hasten badira, 2 hilabeteko probaldia egin beharko dute. Probaldiak irauten duen bitartean, bai langileak bai Enpresak proba egiteari edo kontratua ez berritzeari uko egin diezaioke, hurrenez hurren, aurrez jakinarazi gabe. Hori gertatzen bada, aldeetako batek ere ez du kalte-ordainerako eskubiderik, eta langileak lan egindako egunei dagokiena baino ez du kobratuko. Dena dela, unean-unean Donostiako Tranbia Konpainia SAUn kontratazioari eta jardueraren balorazioari buruz indarrean dauden arauen menpe egongo dira, kontratazio modalitatea edozein dela ere.

Laugarrena.- Gogora ekartzen da lan poltsan sartzeko baldintzei buruzko informazio hau:

- "D" klaseko Gidabaimena: baldintza hau lanean hasten den egunerako eduki behar da.
- Gaitasun Profesionalaren Egiaztagiria edukitzea (CAP): baldintza hau lanean hasten den egunerako eduki behar da.

Hautaketa Prozesuan zehar, Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta hautagairen batek informazio edota dokumentu faltsuak aurkeztu baditu, hautagai hori deialditik kanpo utzi ahal izango du automatikoki.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin lotura duen informazio guztia jakinarazpenerako honako bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- Web orria: www.dbus.eus/es/otros-servicios/seleccion-de-personal/
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain, 7. Donostia-San Sebastian).

Izpta.Hautaketa Batzordea
Donostia, 2018ko urtarrilaren 3a

1. ERANSKINA:**3. Faseko Elkarrizketa eta Analisi Pertsonalaren behin betiko emaitza.**

NAN	3. FASEA PUNTUAZIOA (gutx. 9/10 puntu)
15990679K	10,50
44162494X	9,50
72511889L	9,25

2. ERANSKINA:**4. Faseko merezimenduen balorazioaren behin betiko emaitza**

NAN	4. FASEA EUSKARA (gehi. 5 puntu)	4. FASEA ESPERIENTZIA (gehi. 10 puntu)	4. FASEA GUZTIRAKO PUNTUAZIOA (gehi.15 puntu)
15990679K	1,00	10,00	11,00
44162494X	5,00	0,36	5,36
72511889L	5,00	10,00	15,00

3. ERANSKINA:

Behin betiko azken kalifikazioa.

NAN	AZKEN KALIFIKAZIOA
15990679K	76,73
44162494X	67,46
72511889L	73,33